


ARAZO-EGOERAK EZAUGARRIAK

HELDUEN HEZKUNTZA EREDUAK



ARAZO-EGOERA EZAUGARRIAK



ZER DA GURETZAT ARAZO-EGOERA?

Hitzaurrea

Gaur egungo curriculumak konpetentzietan oinarritzen da, eta arazo egoerei erantzun egokiak ematen dakiten pertsonak prestatzeko beharra defendatzen du. Hau da, planteatzen du ikasleak egoera konplexuen eta esanguratsuen aurrean jarri behar ditugula, egoera horiek konpon ditzaten, horretarako behar den konpetentzia edo konpetentzia multzoa baliatuz.

Arazo-egoerak garrantzitsuak dira konpetentziak garatzeko, jakintzak integratzen eta jakintza horiek egoera berrien aurrean erabiltzen laguntzen dutelako.

Arazo-egoera kontzeptua

Arazo-egoerak planteatzen dizkiegunean, ikasleek, banaka edo taldeka, informazioen multzo bat antolatu behar dute, testuinguru baten barruan, zeregin jakin bat egiteko, non ez baita oso begi-bistakoa aldeztetik zein den irtenbidea.

Ariketa konplexu mota bat da, oztopo bat aurkezten duena, erronka bat. Hura gaindituz gero, ikasleek gauza berriak ikasiko dituzte. Kontua da ikasleek arazo-egoera horren irtenbidea aurkitzea, testuingurutik kanpoko diziplina-edukiak saihestuz.

Azken finean, arazo-egoera irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren abiapuntua da, bai eta konpetentziak ebaluatzeko oinarria ere.

Arazo-egoeraren ezaugarriak

- Egoera konplexua da, funtsezko informazioa eta bigarren mailakoa ematen dituena. Ikasleek aurretik ikasitako eduki desberdinak mugitzea eskatzen du, eta jakintza berriak lortzea ahalbidetzen du.
- Ikasleek argiro identifikatu daitezkeen produkzio bat egitea du helburu: arazo baten irtenbidea aurkitzea, arte-objektu bat, objektu funtzional bat, ekintza-plan bat, eta abar. Produkzio hori itxia izan daiteke, edo erabat irekia.
- Ez da zehazki "egoera didaktiko" baten baliokidea, non irakasleak gidaturik helburu bakarra den irakastea eta ikastea. Aitzitik, arazo-egoera zehatz baten baliokidea da, bizitzaren eremu desberdinetan gerta daitezkeena, eta ikasleek aurre egiten diote, banaka edo taldeka; eskola-esparrutik kanpo ere konpondu dezakete. Nolabait, ikasleek askatasuna dute jarraitu nahi duten bidea aukeratzeko eta beren jakintzak al bait eta modu egokien aplikatzeko.
- Ikasleentzat esanguratsua izan behar du, hau gertatzen den neurrian:
 - haien interesekin lotzen den eta haien jakintzak mugitzera bultzatzen dituen;
 - haien ezagupen-mailara egokitzen den, haientzat erronka lorgarria den, errazegia ez den, eta ez dagoen haien eskumenetik kanpo;
 - zuzenean erabilgarria edo funtzionala den eta lan osoan aurrera egiten laguntzen dien;
 - haien jakintzak testuinguru batean sartzen laguntzen dien, jakintza desberdinen erabilgarritasuna agerian uzten duen eta jakintza horiek aplikatzeko eremuen mugak esploratzen dituen;
 - diziplina desberdinen ekarpena erakusten duen;
 - eta dakitenaren eta oraindik ikasteke dutenaren arteko aldea neurtzen laguntzen dien.

Arazo-egoeraren osagarriak

Arazo-egoerak osagai hauek ditu:

- Testuingurua: zer ingurutan kokatzen den deskribatzen du.
- Arazoa: testuingurutik sortua da, eta irtenbide bat aurkitu behar zaio.
- Xedea: produkzioaren helburutzat jo behar da.
- Zeregina: espero den produktuak zehazten ditu.
- Kontsigna: lan-jarraibideen multzoa da, jarduera-sekuentzien garapenerako oinarria izan daitekeena.

Zertarako arazo-egoerak?

Arazo-arazoek helburu desberdinak dituzte, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren barruan erabiltzen diren unearen arabera.

- Ikastaldia hasi aurretik erabiliz gero, unitate didaktikoa mugiarazten dute, unitatean edukiak sartzeko eta ikasleei aurrera egiten laguntzeko.
- Ikastaldia amaitu ondoren erabiliz gero, lortu nahi diren kompetentzien arabera eskuratutako edukiak ebaluatzeko balio dute.

Laburpen gisa

Hona kompetentzien hezkuntzaren planteamendua: ikasleei arazo-egoerak planteatu behar dizkiegu, kompetentziak gara ditzaten egoera horiek konpontzerakoan.

Ikaskuntza-prozesu osoan zehar, kontuan hartu behar dugu arazo egoeren bidez saiitzen ari garela bizitza errealean gertatzen dena islatzen, non pertsonak aurrean dituzten arazoak ez dauden inoiz "diziplinen arabera sailkatuta".

Beharrezkoa da, horrenbestez, ikaskuntza-prozesuek jakinduriak integratzen eta orokortzen laguntzea, egoera berrietan aplikatzen errazteko.

GLOSARIOA

Testuingurua

Arazo-egoera zer ingurutan kokatzen den deskribatzen du, hau da, arazo baten inguruan dagoen zirkunstantzia-multzoa, zirkunstantzia horiek egon ezean, ez bailitzake arazoa ulertzerik egongo. Testuinguruan, zenbait konturekin erlazionatutako datuak ager daitezke, hala nola arazoa kokatzen den lekuarekin, unearekin, ukitzen dituen pertsonekin edo talde sozialekin, kausekin, eta abar...

Ahal den neurrian, saiatzen gara ikasleengandik gertu dagoen testuinguru bat aurkezten, eta esanguratsua dena, hau da, eremu akademikoaz gain, edozein jarduera-eremu islatzen duena (pertsonala, soziala, lanekoa...).

Arazoa

Mario Bungerearen definizioaren arabera, "zailtasunen bat daukan egoera bat da arazoa, zeina konpontzeko, ez dagoenez berez bide bat, deliberazio edo ikerketa kontzeptuala edo enpirikoa behar baita". Arazo bat, horrenbestez, ariketa konplexu bat da, zailtasunen bat duena, eta hura konpontzeko bide bakarra ez dagoenez, ikerketa-prozesu bat betetzea eskatzen du.

Arazoa ebazteak dakar berarekin batera zenbait eduki eta konpetentzia mugitzea eta integratzea.

Xedea

Helburuetatik haratago doa, izaera globalagoa dauka, eta konpetentziaren osagairen batekin erlazionatu daiteke, zuzenean edo zeharka.

Helburuak

Arazo-egoera batek ez du berez helburu didaktikorik; haiek Unitate Didaktiko baten elementuak baitira.

Arazo-egoera horretatik abiatuta, unitate didaktiko desberdinak garatzeko aukera egongo denez, proposatzen diren helburu didaktikoak egon daitezkeen unitate didaktikoren bati dagozkionak izango dira.


Ataza

Zer produktu lortu nahi den zehazten du. Hala, bada, zehaztu behar dugu zer espero dugun ikasleek egitea. Argiro identifikatu daitezkeen produkzio bat da: arazo bati emandako konponbidea, objektu funtzional bat, ekintza-plan bat,... Zeregina egiterakoan, ikasleek Unitate Didaktikoa garatzean ikasitakoa erabiltzen dute.


Jarraibideak

Jarraibide orokorrak dira, eta Unitate Didaktikoan jarduera sekuentzien garapena markatzen dituzten funtsezko kontuak jasotzen dituzte.

EREDUAK



Komunikazio eremua



ARAZO-EGOERA

Izenburua: Siriarrak eta gu hain ezberdinak al gara?

Arloa/ikasgaia: Komunikazio-eremua.

Maila: HHE: III. maila - 2

Testuingurua



Iturria:

https://www.google.es/search?q=refugiados+sirios+imagenes&espv=2&biw=1040&bih=708&source=Inms&tbm=isch&sa=X&sqi=2&ved=0ahUKewjX356gu6nKAhXG6RQKHfeGDh8Q_AUIBiqB&dpr=1#imgsrc=farWL4rP3x7_VM%3A

HHEko ikastetxera Siriako eta Eritreako zenbait errefuxiatu iritsi dira. Haien bizimodua erabat aldatu da azken hilabeteotan, eta azkenean Euskal Herrira etorri dira. Arabieraz hitz egiten dute, baina asko dira ingelesez ere oso ondo moldatzen direnak, eta gero eta gehiagok dakite gaztelania, Hego Amerikan egondako emigrante siriarren eraginez.

Hainbat eta hainbat aldiz entzun ditugu komunikabideetan haien lekualdatzeei buruzko kontaketa zatiak, eta orain aurrez aurre ezagutzeko aukera dugu.

Arazoa

Zer dakigu etorkinei buruz eta jatorrizko herrialdetik beste batera egiten duten lekualdatzeari buruz? Ikastetxeak munduaren alde hori gurera ekarri nahi du, eta guk ere kontatu nahi diegu nolakoak garen gure egunerokoan.

Xedea

Ikastetxean kulturartekotasuna bultzatzea, eta bertan dauden kulturak eta jatorriak ezagutzeko bidea ematea, komunikabideetako genero baten bitartez.

Helburuak

- Sarean informazioa bilatzea herri etorkinari buruz (siriarrak, magrebtarrak, errumaniarrak...)
- Ahoz adieraztea eta elkarri eragitea, era koherente, zuzen eta egokian.
- Komunikabide sozialak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak autonomiaz eta espiritu kritikoz erabiltzea.
- Hizkuntzak ikasteko norberak duen gaitasunari buruz konfiantzazko jarrera garatzea.
- Hizkuntzen askotariko erabilera sozialei buruz hausnartzea, eta balio-judizioak eta aurreiritzi arrazistak, klasistak eta abar sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak alde batera uztea.
- Autorregulazio-estrategiak garatzea (koebaluazioa, autoebaluazioa...).
- Taldean lan egitea eta lan kolektiboen ardurak partekatzea.
- Pertsona, kultura eta herrialde desberdinen ekarpen positiboak balioestea.
- Testu-generoaren egiturari buruz hausnartzea: elkarrizketa.
- Elkarrizketaren testu-generoaren oinarriko konbentzioak erabiltzea.
- Testuinguruari dagokion elkarrizketa egoki bat egitea, paperean edo euskarri digitalean, komunikabideetan egiten den moduan.

Ataza

Ahozko elkarrizketa xume elebiduna (gaztelaniaz eta ingelesez) egitea ikaskide siriari bati, haren herrialdetik gurera etortzeko egin zuen bidaiari buruz, ikastetxeko aldizkarian euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeko.

Jarraibideak

- Lehenik eta behin, arazoaren egoera aurkeztuko da, baita lan-plana adostu ere.

Bikoteka:

- Komunikabideetan egiten dituzten elkarrizketa motak aztertuko dituzte.
- Siriari buruzko informazioa eta errefuxiatuen lekualdatzeari buruzkoa bilatuko dute sarean.

Lauko taldetan:

- Elkarrizketaren edukia eta antolaketa planifikatuko dituzte, ingelesez eta gaztelaniaz egingo diren zatiak zehaztuta.
- Elkarrizketatuko duten pertsonarekin adostuko dute noiz eta non egingo den elkarrizketa, eta zer hizkuntza erabiliko dituzten.
- Adostuko dituzte gure eguneroko bizimoduko zer gizarte- eta kultura-

elementu aukeratuko dituzten elkarrizketatuari kontatzeko.

- Elkarrizketa egingo dute, ahozko hartu-emanen gizarte- eta komunikazio-arauak egoki aplikatuta, eta ingelesa eta gaztelania une jakin hauetan baliatuta: ingelesa ahozko aurkezpena egiteko eta agur esateko erabiliko dute, eta gaztelania, berriz, elkarrizketaren gainerako zatiak egiteko.
- Elkarrizketa egingo dute hizkuntzaren erabilera diskriminatzailea alde batera utzita, eta hizkuntza-alternatibak bilatuko dituzte.
- Elkarrizketa transkribatuko dute, baita egokitu ere, aldizkariko erredakzio-batzordeari aurkezteko, euskara eta gaztelania baliatuta. Euskara erabiliko dute elkarrizketa aurkezteko, nor elkarrizketatuko duten azaltzeko, eta elkarrizketatua nondik nora ibili den adierazteko. Gaztelania, berriz, elkarrizketaren gainerako zatiak emateko erabiliko da.

Ikastaldean:

- Proposatutako ikaskuntzaren prozesua eta lorpen-maila ebaluatuko dituzte (koebaluazioa eta autoebaluazioa).

ARAZO-EGOERA

Izenburua:

Gure gizartean indarkeria matxistan parte hartzen al dugu?

Arloa/ikasgaia:

Komunikazio-eremua

Maila:

HHE: III. maila - 3

Testuingurua



Iturria:

https://www.google.es/search?q=imagenes+violencia+machista&espv=2&biw=1040&bih=708&source=Inms&tbn=isch&sa=X&ved=0ahUKEwi4ur2KuqnKAhWGzxOKHQPIBOsQ_AUIBigB#imgrc=42YOG1i79x1D2M%3A

Azken 20 urteotan 1.300 emakumetik gora hil dira, bikotekideek erailda. Duela egun batzuk, manifestazio jendetsua egin zuten Madrilen, terrorismo matxista hori amai dadin... Baina, badirudi politikak beste lehentasun batzuk dituela, eta beste nonbaitera begira daudela.

Bestalde, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren aurkako Behatokiko presidente Angeles Carmonak ohartarazi duenez, zenbatekoak erne jartzeko modukoak dira; izan ere, indarkeria matxistaren biktimen kopurua gero eta handiagoa da. Hala dio: "Kezkatuta gaude, gure gizartean oraindik ere indarkeria matxistaren jarrerek irauten dutelako, familiakoek eta lagunek ez dutelako sendo aurrera egiten, egoerak salatzeko eta biktimei prozesuan laguntzeko, eta oraindik ere justifikazioak bilatzen direlako genero-terrorismoa besterik ez dena zurrizko".

Arazoa

Deskribatutako egoera sexismo estrukturalak eta sozialki onartutako indarkeriak osatzen duten icebergaren tontorra al da?

Xedea

Genero-indarkeriari buruzko hausnarketa egitea, eta gizartean dagoen sexismoari buruzko azalpenezko eta argudiozko testua idaztea, ikastaldearen blogean sartzeko.

Helburuak

- Proposatutako ahozko testuak ulertzea eta era kritikoan interpretatzea.
- Ahoz eta idatziz adieraztea eta elkarri eragitea, era koherente, zuzen eta egokian.
- Norberaren iritzia adieraztea, jarrera sexistak hizpide hartuta.
- Taldean lan egitea eta lan kolektiboen ardurak partekatzea.
- Hizkuntzen erabilera sozialei buruz hausnartzea.
- Balio-judizioak eta aurreiritzi sexistak, klasistak eta abar adierazten dituzten hizkuntza-estereotipoak alde batera uztea.
- Azalpenezko eta argudiozko testuak idaztea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak autonomiaz erabiltzea.
- Ebaluazio-jardueratan parte hartzea (autoebaluazioa, koebaluazioa...).

Ataza

Proposatutako film zatietan ageri diren gizarteko portaera eta jarrera sexistei buruzko azalpenezko eta argudiozko testua idaztea, banaka, gero ikastaldearen blogean sartzeko.

Jarraibideak

- Lehenik eta behin, arazoaren egoera aurkeztuko da, baita lan-plana adostu ere.

Ikastaldean:

- Proposatutako filmetako baten zatia ikusiko dute Internet bidez, ingelesez, euskaraz edo gaztelaniaz.

Eztabaidan:

- Taldean ahoz aztertuko dituzte sexismoari buruz eta emakumeen aurkako indarkeriari buruz pertsonaiek dituzten portaera eta jarrerak.
- Diskriminazioa eta indarkeria sexista adierazten duten esamoldeak eta portaerak identifikatuko dituzte.
- Jarrera edo portaera sexistei laguntza aktiboa edo pasiboa ematen dieten filmeko egoerak nabarmenduko dituzte.
- Filmeko interakzioetan esplizituki ageri ez diren elementuak inferituko

dituzte.

- Filmeko pertsonaien ikuspegi ezberdinak alderatuko dituzte.
- Parte hartuko dute, eta ikuspegi pertsonal argudiatua azalduko dute.
- Besteen argudioei kontra egingo diete.
- Ahozko elkarrizketei dagozkien gizarte-komunikazioko arau batzuk aplikatuko dituzte.
- Ikuspegi ezberdinak alderatuko dituzte.


Bikoteka:

- Film zatien artean, portaera sexistak adierazten dituzten zenbait egoera aukeratuko dituzte.
- Eztabaidan agertu diren argudioak (norberarenak zein besteenak) baliatuko dituzte, ekarpen gisa, lankidetzan jarduteko, eta gero amaierako testua idazteko.

Banaka:

- Amaierako azalpenezko eta argudiozko testua planifikatuko dute, baita idatzi ere.
- Emaiza (argudiozko testua) partekatuko dute ikastaldearen blogean.
- Ikastaldean:
- Proposatutako ikaskuntzaren prozesua eta lorpen-maila ebaluatuko dituzte (koebaluazioa eta autoebaluazioa).

Zientzia eta teknologia eremua



ARAZO-EGOERA

Izenburua:

Zer telefono-konpainia hartuko dut gutxiago ordaintzeko?

Arloa/ikasgaia:

Zientzia- eta teknologia-eremua

Maila:

III. maila - 1. modulua

Testuingurua



Orain dela urte batzuk, familia bakoitzak telefono bakarra zuen: etxean telefono bat zegoen, eta familiako kide guztiek hura erabiltzen zuten. Orain, berriz, pertsonak dituzte telefonoak; beraz, ohikoa da familia bakoitzak hiruzpalau telefono izatea. Zalantzarik gabe, horrek gastu handiagoa dakar familientzat, eta zenbait kasutan, oso kontuan hartzekoa izan daiteke.

Arazoa

Amaigabea dirudien telefonia-eskaintzen sorta eta estrategia komertzial erasokorrek ez dira batere lagungarriak izaten.

Nire familiaren beharrak kontuan izanda, zer telefono-konpainia hartuko dut gutxiago ordaintzeko?

Xedea

Pentsamendu kritikoa izatea, aukera merkeenaren aldeko erabakia hartzeko, telefonia-enpresen eskaintzak kontuan izanda, eta familiaren premia jakin batzuk oinarri hartuta.

Helburuak

- Telefoniaren arloan dauden aukerei buruzko informazioa lortzea, familiako kontsumoaren testuinguruan erabiltzeko.

- Kalkulu-prozedurak erabiltzea, telefonia-kontsumoarekin lotutako problemak ebazteko.
- Telefoniari buruzko talde-jardueratan parte hartzea, eta plangintzan zein gauzatzeko prozesuan laguntzea.
- Telefonia-kontsumoari buruzko irizpide pertsonal arrazoituak lantzea.

Ataza

Txosten bat egitea, telefonia-enpresek ematen dituzten aukera guztiak bilduta. Familiaren kontsumo jakin bat oinarri hartuta, premietara gehien egokitzen den aukeraren alde egitea, eta erabaki hori hartzeko bost arrazoi argudiatzea, gutxienez.

Jarraibideak

3 edo 4 pertsonak osatutako taldetan:

- Arazoaren egoera aurkeztu ostean, lan-plana adostuko dute.
- Lau pertsonako familia baten balizko telefonia-kontsumoa diseinatuko dute.
- Telefonia-konpainien eskaintzak aztertuko dituzte.
- Hileko gastua jakiteko egin behar diren kalkulu guztiak egingo dituzte.
- Txosten bat egingo dute, kontsumo jakin horretarako konpainiek dituzten aukera guztiak jasota.
- Premiak kontuan hartuta, aukera egokiena hautatuko dute, eta erabaki hori hartzeko bost arrazoi argudiatuko dituzte, gutxienez.
- Prozesua eta lortutako ikaskuntza ebaluatuko dituzte (koebaluazioa eta autoebaluazioa).

ARAZO-EGOERA

Izenburua: Haragia jateari utzi behar al diogu?

Arloa/ikasgaia: Zientzia- eta teknologia-eremua

Maila: III. maila - 1. modulua

Testuingurua

Haragi gorriaren eta haragi prozesatuaren kontsumoaren eragin kartzinogenoaren ebaluazioa

2015eko urriaren 26a -- Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentziak (IARC) haragi gorriaren eta haragi prozesatuaren eragin kartzinogenoa ebaluatu du. 10 herrialdetako 22 adituk osatutako lantalde batek egindako sailkapenen arabera, haragi gorria ziur aski kartzinogenoa da gizakientzat (2A taldea), eta haragi prozesatua kartzinogenoa da gizakientzat (1. taldea). Adituek 800 ikerlanetik gora aintzat hartu zituzten. Ikerlan haiek bi arlo hauen arteko loturak aztertzen zituzten: alde batetik, haragi gorriaren eta haragi prozesatuaren kontsumoa; eta bestetik, zenbait kantzer mota (dozena bat baino gehiago). Hainbat herrialdetan egin zituzten ikerketak, askotariko dietak zituzten biztanleak kontuan hartuta, eta ondorio horiek atara zituzten.



Arazoa

Haragi gorriaren eta haragi prozesatuaren eragin kartzinogenoari buruz sortutako polemika oinarri hartuta, dieta orekatua egin al dezakegu elikagaien artean haragirik sartu gabe?

Xedea

Norberaren iritzia eratztea, haragi gorriaren eta haragi prozesatuaren kontsumoari buruz, dieta orekatu bat egite aldera, eta iritzi hori justifikatzea, komunikabideetan agertu diren informazioak oinarri hartuta.

Helburuak

- Elikadurari buruzko ohiturak garatzea.

- Elikadurari buruzko talde-jardueratan parte hartzea, eta plangintzan zein gauzatzeko prozesuan laguntzea.
- Elikadurari buruzko informazioak interpretatzea eta sortzea, eremuko ikasgaiei dagozkien baliabideak eta hiztegia egoki erabilia.
- Elikadurari buruzko irizpide pertsonal arrazoituak lantzea.
- Gaiari buruzko hiztegi zientifikoa egoki erabiltzea.

Ataza

3 edo 4 pertsonak osatutako taldetan, antolatu asteko dieta orekatua pertsona heldu osasuntsu batentzat.

Jarraibideak

3 edo 4 pertsonak osatutako taldetan:

- Arazoaren egoera aurkeztu ostean, lan-plana adostuko dute.
- Zenbait komunikabidek gaiari buruz emandako informazioak aztertuko dituzte.
- Osasunean eragiten duten faktoreen eta nutrizio-funtzioen arteko loturak egingo dituzte.
- Nutrizioaren alorreko ezagutzak aplikatuko dituzte dieta bat antolatzeko.
- Asteko dieta orekatu bat antolatuko dute pertsona heldu osasuntsu batentzat.
- Prozesua eta lortutako ikaskuntza ebaluatuko dituzte (koebaluazioa eta autoebaluazioa).

Sozial eremua

